



EUSKAL HERRIKO IGERIKETA ARTISTIKOKO III. TXAPELKETAREN ARAUDIA: HAURREN FIGURAK, KONBINATUA ETA ERRUTINAK - 2019-2020 denboraldia

Egunak: 2020ko otsailaren 29a

Zenbaki-inkripzioak: 2020ko urtarrilaren 31 – otsailaren 10a

Inskripzio nominalak: 2020ko otsailaren 10a – otsailaren 18a

Tokia: Etxebarri

Igerilekua: Udal-kiroldegia

1. KATEGORIAK

HAUR KATEGORIA, EMAKUMEZKOAK.- Jaioturteak: 2005, 2006 eta 2007.

HAUR KATEGORIA, GIZONEZKOAK.- Jaioturteak: 2004, 2005, 2006 eta 2007.

JUNIOR, EMAKUMEZKOAK.- Jaioturteak: 2002, 2003, 2004 eta 2005.

JUNIOR, GIZONEZKOAK.- Jaioturteak: 2001, 2002, 2003, 2004 eta 2005.

ABSOLUTUA.- 2005. urtea eta aurrekoak.

2. PARTE-HARTZEA

HAUR KATEGORIA: inskribatutako lehiatzaile bakoitzak lehiaketa nazionalen batean parte hartu beharko du edo balorazioko kontrol-probetako (gidetako) haurren gaitasun-maila gainditu aurreko denboraldian.

Klub bakoitzak figura eta konbinatuetan parte hartu ahal izango du, nahi adina konbinatutan, betiere inskribatutako lehen konbinatua zortzi lehiatzailek osatzen badute, eta horrela hurrenez hurren.

JUNIOR KATEGORIA: inskribatutako lehiatzaile bakoitzak lehiaketa nazionalen batean parte hartu beharko du edo balorazioko kontroleko probetan (gidetan) haurren gaitasun-maila gainditu beharko du aurreko denboraldian.

KATEGORIA ABSOLUTUA: inskribatutako lehiatzaile bakoitzak ez du inolako maila edo partaidetzarik egiaztatu beharrik izango lehiatzeko.

Lehiatzaileak talde bakar batean eman ahal izango du izena, 2005. urtean jaiotako igerilariak izan ezik. Horiek haurren kategorian eta junior kategorian edo kategorian absolutuan parte hartu ahal izango dute.

3. LEHIAKETAREN FORMULA

a) Haurren kategoria: Lehiaketak figurak eta konbinatua ditu. Parte-hartzaile guztiek nahitaezko figuren multzoa eta hautazko multzo bat egingo dituzte. Hori zozketaz erabakiko da, FINA Erregelamenduan (2017-2021) agertzen direnen artean. Emaitza % 100ean oinarrituta lortuko da, bai figuretan, bai konbinatuan lortutakoarekin, biak independenteak baitira.

b) Junior eta absolutua: Lehiaketak errutina teknikoak eta libreak ditu. Emaitza ateratzeko, errutina teknikoen % 100 + errutina librearen % 100 hartuko da oinarritzat, konbinatuan eta highlight-ean izan ezik, hori %100 izango baita.

Nahitaezkoa izango da errutina teknikoa aurkeztea, dagokion homologo librearekin parte hartzeko.



Errutinek iraupen hau izango dute:

	HAUR KATEGORIA	JUNIOR	ABSOLUTUA
SOLO TEKNIKOA		2 min.	2 min.
SOLO LIBREA		2 min. 30 seg.	2 min. 30 seg.
DUO TEKNIKOA		2 min. 20 seg.	2 min. 20 seg.
DUO LIBREA		3 min.	3 min.
DUO MISTO TEKNIKOA		2 min. 20 seg.	2 min. 20 seg.
DUO MISTOLIBREA		3 min.	3 min.
MULTZO TEKNIKOA		2 min. 50 seg.	2 min. 50 seg.
MULTZO TEKNIKOA		4 min.	4 min.
KONBINATUA	3 min. 30 seg.	4 min.	4 min.
HIGHLIGHT		2 min. 30 seg.	2 min. 30 seg.

- c) Kategoria absolutua: junior kategorian bezala parte hartu ahal izango da.
- d) Araudi honetan agertzen ez diren kontu guztietarako, RFENen araudia beteko da, edo, bestela, FINArena.
- e) Lehiaketako saio bakoitzeko proba-programak aldatu ahal izango dira, inskripzioen kopuruak edo inguruabarrek hala eskatzen badute. Proposatzen diren aldaketak EIF-FVNri eta NIF-FNNri jakinarazi beharko zaizkie, eta horiek egokiak iruditzen zaizkienak onetsiko dituzte. Gehien jota, lehiaketa hasi baino hamar egun lehenago egin ahal izango dira. Antolatzaileek ezin izango dute saio-kopurua aldatu, EIF-FVN eta NIF-FNNek baizik ezin izango dute egin.

4. PROGRAMA

Lehiaketako epaile nagusiarekin eta EIF-FVN eta NIF-FNNren Igeriketa Artistikoaren Arearekin bat etorritik, antolakuntzako idazkaritzak ezarriko du lehiaketaren ordutegia eta dominak eta trofeoak emateko modua.

5. INSKRIPZIOAK, EPAIMAHAIA, ZOZKETAK, MUSIKA-KONPOSIZIOA, LEHIAKETAREN KONTROLA ETA EMAITZAK, PUNTUAZIOAK ETA SAILKAPENAK

Alderdi Orokorrei buruzko 2019/20 denboraldiko araudian zehazten dira.



6. SAILKAPENA ETA SARIAK

Urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak egongo dira kategorია bakoitzeko lehen hiru sailkatuentzat.

- a) Haurren kategorian, figuren sailkapen bat eta konbinatu libreko beste bat egingo dira.
- b) Gainerako kategorietan, junior eta absolutuan, domina bana egongo da modalitate bakoitzeko.

Horrela, dominak modalitate hauetan emango dira:

SOLOA (TEK+LIBREA)

DUOA (TEK+LIBREA)

DUO MISTOA(TEK+LIBREA)

MULTZOA (TEK+LIBREA)

KONBINATU LIBREA

HIGHLIGHT

Era berean, kopa bat emango zaio klub irabazleari, modalitate eta kategoría guztien puntuazioen batura osotik aterata, EIF-FVN eta NIF-FNNeK argitaratutako dokumentua oinarritzat hartuta (*Igeriketa artistikoaren araudia - Alderdi orokorrak. 2018-2019 denboraldia*).

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK

EIF/FVNren Batzar Ekonomikoan onartutako araudi ekonomikoa bete beharko dute.

8. BESTELAKOAK

Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan EIF-FVNrekin helbide elektroniko honen bidez: info@eif-fvn.org